

Abenduan etorritako bidaiari kopurua %5 gehitu da eta %1 gutxitu igarotako gau kopurua

2007. urte osoan %4 gehitu dira sarrerak eta %3 igarotako gauak, 2006ren aldean

EUSTATen datuen arabera, 2007ko abenduan 141.430 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko hoteletan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 7.000 gehiagok eta, horrenbestez, %5eko gehikuntza izan da. Hiru lurraldeetan gehitu da etorritako bidaiari kopurua: 2006ko abenduko datuekin alderatuta Araban %3 gehitu da bidaiarien kopurua, Bizkaian %6 eta Gipuzkoan %5.

Estatuko bidaiarien sarrera-kopuruan ez da aldaketa handirik eman eta atzeritik etorritako bidaiarien sarrerak %28 gehitu dira. Estatuko bidaiarien kopurua pixka bat murriztu da Araban eta Bizkaian (%-1), baina Gipuzkoan ez da aldaketa handirik eman (%0). Atzeritik etorritako bidaiarien kopurua nabarmen gehitu da hiru lurraldeetan: Araban %28 gehitu da, Bizkaian %32 eta Gipuzkoan %24.

Estatuko bidaiarien artean gehitu egin da Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon eta Errioxatik etorritakoen kopurua, batez ere, eta murriztu egin da, aitzitik, Andaluzia, Kantabria eta Madrildik etorritakoena. Atzeritarren artean oro har herrialde guztietatik etorritakoen kopurua gehitu da, baina bereziki Frantziatik, Erresuma Batutik, AEB-Kanadatik eta Italiatik etorritakoena, besteak beste. Soilik murriztu da Belgika, Luxemburg eta Iberoamerikatik etorritako bidaiarien kopurua.

Bestalde, 2007ko abenduan 255.924 gau igaro dituzte bidaiariek; hau da, aurreko urteko abenduarekin alderatuta gaua igaro dutenen kopurua %1 murriztu da, guztira ia 1.500 gau gutxiago igaro baitituzte. Igarotako gauek urte arteko bilakaera positiboa izan dute Araban (%7), Bizkaian ez dira aldatu eta Gipuzkoan %4 egin dute behera.

Batez besteko egonaldien iraupena %6 murriztu da urte batetik bestera Euskal Autonomia Erkidego osoari dagokionez: 2006ko abenduan 1,92 egun igaro zituzten bidaiariek eta aurtengo abenduan 1,81 egun igaro dituzte.

Plazen okupazioa %1 murriztu da eta logelen okupazio maila %2 gehitu da 2006ko abenduaren aldean. Plazen okupazio maila %38,40tik %37,97ra jaitsi da; logelen okupazio maila %45,32tik %46,34ra igo da.

Hotel-establezimenduen 2007ko balantzea: aurreko urtean baino %4 sarrera gehiago izan dira eta bidaiariak igarotako gau kopurua %3 gehitu da

Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduen 2007ko balantzea gehikuntzekin itxi zen, bai bidaiarien sarrerei (%4) bai igarotako gau kopuruari (%3) dagokienez, betiere aurreko urtearen aldean.

2007. urtean 2.093.346 bidaiari etorri dira, hau da, aurreko urtean baino 86.000 gehiago; horrela, **ondoz ondoko bigarren urtez gainditu da Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan ostatua hartu zuten milioi biko bisitarien kopurua**. Bizkaian %7 gehitu da etorritako bidaiari kopurua eta Gipuzkoan %4; alabaina, Araban %2 gutxitu da kopuru hori.

2006. urtean 3.956.867 gau igaro dituzte bidaiariak, hots, aurreko urtean baino 100.000 gehiago. Igarotako gau kopuruak, beraz, bilakaera positiboa izan du Bizkaian (%5) eta Gipuzkoan (%2), baina murriztu egin da Araban (%-2).

Batez besteko egonaldien iraupena 1,92 egunekoa izan da 2006. urtean eta 2007an 1,89 egunekoa. Plazen okupazio mailak ehuneko 3 puntu egin du behera Euskal Autonomia Erkidegoan: 2006an %48,34koa izan zen eta 2007an %46,94koa.

1. taula: Urteko emaitzak

	EUSKAL AE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	2007	2006	Δ %	2007	2006	Δ %	2007	2006	Δ %	2007	2006	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK												
GAUALDIAK	3.956.867	3.858.440	3	533.437	544.925	-2	1.826.987	1.746.282	5	1.596.443	1.567.233	2
BIDAIARIEN SARRERAK	2.093.346	2.007.548	4	307.661	313.622	-2	994.357	931.326	7	791.328	762.600	4
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,89	1,92	-2	1,73	1,74	0	1,84	1,88	-2	2,02	2,06	-2
BETETZE-MAILA	46,94	48,34	-3	43,03	44,15	-3	45,57	45,82	-1	50,18	53,39	-6

Iturria: Eustat

NEKAZALTURISMOA

Abenduan bidaiarien sarrerak gehitu dira (%15), baita bidaiariak igarotako gauak ere (%1)

Joan den abenduan 8.400 bidaiarik hartu dute ostatu Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan, aurreko urteko hilabete berean baino %5 gehiagok.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan guztira 22.176 gau igaro dituzte bidaiariak abenduan, aurreko urteko hilabete berean baino %1 gehiago.

Bidaiari bakoitzaren batez besteko egonaldiak beherapen handia izan du (%4koa) Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta plazen okupazio maila %5 gutxitu da. Logelen okupazio mailak, urte batetik bestera, %10eko beherapena izan du.

Nekazalturismoen 2007ko balantzea: bidaiarien sarrerak eta bidaiariak igarotako gauak %4 gehitu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazalturismoetan 108.163 bidaiari izan dira 2007. urtean zehar, hau da, aurreko urtean baino %4 gehiago; bestalde, 324.493 gau igaro dira nekazalturismoetan, 2006an baino %4 gehiago hau ere.

Arabak (%22) eta Bizkaian (%3) bidaiari gehiago izan dira, baina Gipuzkoan ez da aldaketarik eman (%0). Igarotako gau kopurua hiru lurraldeetan gehitu da: Araban (%21), Bizkaian (%3) eta Gipuzkoan (%1).

2007. urtean bidaiari bakoitzak batez beste 3 egun igaro ditu, 2006. urteko kopuru bera. Okupazio mailak behera egin du (%-7): 2006. urtean %28,95koa izan da eta 2007an %27,00koa.

2. taula: Urteko emaitzak

EUSKAL AE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
2007	2006	Δ %	2007	2006	Δ %	2007	2006	Δ %	2007	2006	Δ %

NEKAZALTURISMOA

GAUALDIAK	324.493	310.955	4	50.034	41.348	21	102.128	98.685	3	172.331	170.922	1
BIDAIARIEN SARRERAK	108.163	103.639	4	19.328	15.897	22	35.419	34.267	3	53.416	53.475	0
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	3,00	3,00	0	2,59	2,60	0	2,88	2,88	0	3,23	3,20	1
BETETZE-MAILA	27,00	28,95	-7	22,50	21,26	6	25,43	27,14	-6	29,83	33,14	-10

Iturria: Eustat

1. taula: Hileko emaitzak

	EUSKAL AE					ARABA					BIZKAIA					GIPUZKOA				
	12 2007	%	12 2006	%	Δ %	12 2007	%	12 2006	%	Δ %	12 2007	%	12 2006	%	Δ %	12 2007	%	12 2006	%	Δ %
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK																				
GAUALDIAK	255.924	100	257.364	100	-1	37.322	100	34.915	100	7	120.438	100	120.411	100	0	98.164	100	102.038	100	-4
Estatukoak	192.430	75	201.310	78	-4	31.085	83	29.957	86	4	86.943	72	90.199	75	-4	74.402	76	81.154	80	-8
Atzerrikoak	63.494	25	56.054	22	13	6.237	17	4.958	14	26	33.495	28	30.212	25	11	23.762	24	20.884	20	14
Hiriburua	155.597	61	165.016	64	-6	27.719	74	27.480	79	1	79.352	66	81.422	68	-3	48.526	49	56.114	55	-14
Litoral	28.132	11	29.342	11	-4	-	-	-	-	-	8.610	7	10.010	8	-14	19.522	20	19.332	19	1
Barnealdea	72.195	28	63.006	24	15	9.603	26	7.435	21	29	32.476	27	28.979	24	12	30.116	31	26.592	26	13
BIDAIARIEN SARRERAK	141.430	100	134.183	100	5	20.899	100	20.220	100	3	68.934	100	64.911	100	6	51.597	100	49.052	100	5
Estatukoak	107.241	76	107.568	80	0	17.308	83	17.406	86	-1	50.992	74	51.289	79	-1	38.941	75	38.873	79	0
Atzerrikoak	34.189	24	26.615	20	28	3.591	17	2.814	14	28	17.942	26	13.622	21	32	12.656	25	10.179	21	24
Hiriburua	86.441	61	87.629	65	-1	14.903	71	15.482	77	-4	44.306	64	43.732	67	1	27.232	53	28.415	58	-4
Litoral	14.039	10	12.695	9	11	-	-	-	-	-	4.992	7	5.005	8	0	9.047	18	7.690	16	18
Barnealdea	40.950	29	33.859	25	21	5.996	29	4.738	23	27	19.636	28	16.174	25	21	15.318	30	12.947	26	18
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,81		1,92		-6	1,79		1,73		3	1,75		1,86		-6	1,90		2,08		-9
BETETZE-MAILA PLAZAKA	37,97		38,40		-1	37,22		31,66		18	37,27		38,36		-3	39,19		41,48		-6
Hiriburua	40,96		42,32		-3	40,08		39,38		2	41,49		42,46		-2	40,64		43,71		-7
Litoral	37,39		41,01		-9	-		-		-	30,06		34,76		-14	41,90		45,22		-7
Barnealdea	32,99		30,18		9	30,85		18,35		68	31,46		31,05		1	35,64		35,51		0
BETETZE-MAILA GELAKA	46,34		45,32		2	42,82		38,09		12	46,07		46,44		-1	48,22		47,56		1
Hiriburua	49,11		49,86		-2	45,85		48,13		-5	49,21		51,14		-4	51,02		48,87		4
Litoral	42,29		48,67		-13	-		-		-	36,31		41,47		-12	46,24		53,58		-14
Barnealdea	42,41		35,95		18	33,95		19,81		71	42,43		38,01		12	45,08		42,49		6
NEKAZALTURISMOA																				
GAUALDIAK	22.176	100	21.933	100	1	4.339	100	3.895	100	11	6.991	100	7.542	100	-7	10.846	100	10.496	100	3
Estatukoak	20.314	92	20.123	92	1	4.216	97	3.711	95	14	6.726	96	6.763	90	-1	9.372	86	9.649	92	-3
Atzerrikoak	1.862	8	1.810	8	3	123	3	184	5	-33	265	4	779	10	-66	1.474	14	847	8	74
BIDAIARIEN SARRERAK	8.400	100	7.976	100	5	1.780	100	1.429	100	25	2.980	100	3.016	100	-1	3.640	100	3.531	100	3
Estatukoak	8.024	96	7.617	95	5	1.767	99	1.402	98	26	2.949	99	2.889	96	2	3.308	91	3.326	94	-1
Atzerrikoak	376	4	359	5	5	13	1	27	2	-52	31	1	127	4	-76	332	9	205	6	62
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,64		2,75		-4	2,44		2,73		-11	2,35		2,50		-6	2,98		2,97		0
BETETZE-MAILA PLAZAKA	22,77		23,93		-5	22,50		22,04		2	21,22		23,88		-11	24,03		24,75		-3
BETETZE-MAILA GELAKA	24,14		26,96		-10	22,55		23,59		-4	22,28		26,70		-17	26,26		28,59		-8

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxa: +34-945-01 75 01 Helb. el.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxa: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp